



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

94. INFORMAZIO BULETINA

> 2014ko Azaroa



GIPUZKOA



NABARMENDU BEHARREKOA

> **Kirolaren alorrean politika, ekimen eta finantziarioari buruzko jardunaldi-lantegia egin da Donostian**

Europako Batzordeak gomendio, ekimen, programa eta laguntza multzo bat ezarri du Europako kirolaren dimentsioa garatzeko asmoz. Euskal kirol-erakundeentzat neurri horiek onuragarriak gerta daitezke beste kide europarrekin proiektuetan parte hartu edota kirol mugimendu, elkarte edota azpiegiturak indartzen baldin badituzte.

Ildo honi jarraituz, azaroaren amaieran Donostiako Kirol Etxean jardunaldi-lantegi bat antolatu zen. Bertan kirolari buruzko Europako politikak ezagutzera eman dira, baita 2014-2020ko europar programan zehaztutako finantziarioak ere.

Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol Zuzendaritzak antolatu zuten jardunaldia. Bertan, kirola bultzatzen duten lurraldeko eta mugaz gaindiko lankidetzak aurkeztu zuten. Gainera, Euskadiko eragileak murgilduta dauden Europako eta mugaz gaindiko proiektu eta ekimen zehatzak ezagutzera eman zituzten.

Informazio gehiago:

http://www.kultura.ejgv.euskadi.net/r46-5375/es/contenidos/evento/evd_oferta_formatva/es_9240/adjuntos/2014-TA-0M-KU-OR-KE-01-Infomazioa3.pdf



> UPV/EHU-Bordeleko Unibertsitatearen Euroeskualdeko Campusa aurrera doa Sinposiuma eta sinatutako aliantza estrategikoari esker

Azaroaren 19an Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV/EHU) eta Bordeleko Unibertsitateak Aliantza Estrategikoa sinatu zuten Akitania-Euskadi Euroeskualdeko bikaintasun campusa sortzeko.

UPV/EHUko errektore Iñaki Goirizelaiak eta Bordeleko Unibertsitateko errektore Manuel Tuñón de Larak sinatu zuten aliantza, eta bertan ziren baita ere Iñigo Urkullu, Eusko Jaurlaritzaren lehendakari eta Akitania-Euskadi Euro-eskualdeko presidentea, eta Alain Rousset, Akitania Eskualdeko Kontseiluko presidentea. Ekitaldia Bordelen izan zen, bi unibertsitateen arteko I. Simposiumarekin batera, eta bertan, bi unibertsitateetako eta Euskampus eta IdEx-Bordeaux proiektuko 300 pertsonak baino gehiagok hartu zuten parte.

Guztira 14 bilkura egin zituzten honako gaiak jorratuz: osasun publikoa eta bizitza kalitatea, prozesu berritzaileak eta material berriak, ekosistema jasangarriak, eta ondare, arte eta berrikuntza sozialak. Bilkurak Bordeleko Unibertsitateko lantaldeen egoitzetan egin ziren. Hala, ideia, ekimen eta proposamenei buruz eztabaidatzeaz gain, UPV/EHUko parte-hartzaileek Bordeleko homologoen instalazio eta ekipamenduak ikusi ahal izan zituzten.

Bilkura horiez gain, mugikortasuna, pedagogia-berrikuntzak, kalitatea, graduondoko ikasketak, nazioarteko programak eta gizarte-erantzukizunari buruzko lan-bilerak ere egin ziren honako helburuekin: ohitura onak elkartrukatu, partekaturiko aurrerapenean elkarri lagundu, agendak parekatu, elkarlan prozesuak erraztu eta azkartzeko araudiak ulertu eta doitu, jarraipen mekanismoak ezarri, eta bi unibertsitateen arteko lankidetzak garatzeko hobekuntzak proposatu. Ildo honetatik jarraituz, kotutoretza komunitate bat sortu da, ikasle eta tesi zuzendariak osatua. Helburua bi unibertsitate komunitateen arteko harremanak indartzea eta identitate partekatu bat sortzea litzateke. Azken batean, Euro-eskualdeko Campusaren erakundetzea aurrerapausoa eman da.

Informazio gehiago:

<http://euskampus.ehu.es>



> 50 eragiletik gora hartu du parte Akitania-Euskadi Euroeskualdeko mugaz gaindiko interclustering topaketan

Azaroaren 25ean Akitania-Euskadi Euroeskualdeko mugaz gaindiko interclustering-aren bigarren topaketa egin zen Hendaian, Bihartean erakundeak antolatuta (Gipuzkoa eta Bayonne Pay Basque Merkataritza Ganberen elkarlanari esker sortutako taldea). Clusterrak, tokiko garapen-agentziak, enpresak eta zientzia-eta teknologia-erakundeak bertaratu ziren, guztira 50 ordezkari baino gehiago, alegia.

Topaketa bi erakundeek 2013ko abenduan abiarazitako proiektuaren parte da. Helburua bi eskualdeen arteko lankidetzak sakontzea da, baita proiektu, elkarbanatze eta harreman komunetarako espazio handi bat sortzea ere.

Proiektuaren lehenengo zatian mugaz gaindiko elkarlanerako espazioak identifikatu ziren. Horretarako oinarritzat hartu ziren clusterrek adierazitako elkarlanerako eskari-esparruak, baita bi lurraldeetako sektore-espezializazioa eta potentzialtasun eta osagarritasun analisiak ere. Bigarren topaketa honetan potentzial handiena duten elkarlan-esparruak sakondu ziren, eta horretarako gaiaren arabera hiru lantegi antolatu ziren: geokokapenaren aplikazioak sektore-anitzetan, berrikuntzak prozesu industrial/material berrietan, eta elikagaien prozesatzea. Lantegietatik ideia zehatzak atera zituzten, etorkizun laburrean abian jarri litezkeen mugaz gaindiko hainbat proiektuetan erabiltzeko aukera izan dezaketenak.

Informazio gehiago:

<http://www.bihartean.com/index.php>

<http://www.slideshare.net/OrkestraIVC/prsentation-gnrle-de-la-journe-b-1>



KOHESIO-POLITIKA

> **Esparru Atlantikoa Programak bere 2014-2020 Programa Operatiboaren proposamena aurkeztu du**

Nazioz Haraindiko Lankidetzeta Programa, Kohesio-Politikak erabiltzen duen tresna da, honako eremuak hartzen dituena: Irlanda, Portugal, Erresuma Batuko mendebaldeko eremuak; Espainiako iparraldea eta hego-mendebaldea eta Frantziako mendebaldea. Programan guztira 37 eskualde daude, Euskadi barne. 2014-2020 programan espazioa handiagoa izango da honako eskualde berriak sartu baitira: Kanariar Uharteak (Espainia) eta Azores eta Madeirako Autonomia Erkidegoak (Portugal).

2014-2020 aldirako Esparru Atlantikoa Programak proposatutako estrategiak lau lehentasun nagusi ditu: Berrikuntza eta lehiakortasuna sustatu (1. Helburu Tematikoa), Baliabideen eraginkortasuna sustatu (4. Helburu Tematikoa eta 6. Helburu Tematikoa), Arriskuen kudeaketarako sistemak indartu (5. Helburu Tematikoa) eta Biodibertsitatea eta eta aktibo natural eta kulturelei balioa eman (6. Helburu Tematikoa).

Programaren ezarpena lau Helburu Tematikoetan sartzeko inbertsiorako 6 lehentasun hautatu dira. Horren ondorioz, Programarentzako 7 helburu zehatz finkatu dira. EBren helburu orokorrak Esparru Atlantikoaren testuingurura moldatu dira, Programaren espazioaren garapenerako egoera eta beharrak kontuan hartuta.

Informazio gehiago:

<http://www.coop-atlantico.com/atlantic-area-2020/programme-documents/aa-documents/en-op-draft-finalversion-17-sept>



> **Gipuzkoako 600 baserritarrek hartu dute parte Europako Nekazaritza Politikaren erreformaren inguruko dibulgazio-jardunaldietan**

600 pertsona baino gehiagok hartu du parte NPB (Europako Nekazaritza Politika Bateratua) berriaren inguruan egindako hainbat dibulgazio mintzalditan. Jardunaldiak urria eta azaroa bitartean egin ziren Gipuzkoan, Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak elkarrekin antolatuta.

Eusko Jaurlaritzak hiru Foru Aldundiekin batera antolatutako mintzaldietan nekazaritzako sektoreari Nekazaritza Politikaren Erreformaren alderdi garrantzitsuenak azaldu dizkiete, bereziki diru-laguntza zuzenen alorrean.

Mintzaldiak Bizkaian eta Araban ere egin ziren, eta guztira 2.200 pertsonak hartu zuten parte. Baserritarrek 2015 urtetik aurrera diru-laguntzak jasotzeko bete beharreko baldintzei buruz ere hitz egin zen, hala, nekazaritza sektorea aldeztu aurretik moldatzeko aukera izan dezan. Nekazari txikientzako laguntza berriak ere aurkeztu ziren, baita ingurumenarekiko jarduteak baldintzatutako ordainketa-berde osagarri berria ere.

Informazio gehiago:

<http://www.irekia.euskadi.net/es/news/22894-instituciones-vascas-reunen-con-mas-200-personas-del-sector-agrario-para-informar-acerca-reforma-pac>



EUROPA 2020 ESTRATEGIA

> **Parte-hartze handia izan da Donostian IVAPek antolatutako mintegian, Europar Batasunarekin batera finantzaturiko proiektuak sortu eta ezartzeko prozesuei buruzkoa**

Azaroaren hasieran, Kurtsaal Jauregian, IVAPek 'Nola prestatu proiektu sinesgarri bat EBko funtsak lortzeko' izeneko mintegia antolatu zuen. Bertan eskualde-garapeneraren arloan EBrekin batera finantzaturiko proiektuak sortu eta ezartzeko prozesuak aztertu ziren.

Mintegian Europako kofinantzazioa lor dezaketen proiektuen garapen-fase guztiak aurkeztu ziren, sorreratik ezarpeneraino, aurrekontuen prestaketa barne.

Tresna erabilgarriari buruz ere hitz egin zen mintegian, hala nola, Lurralde Lankidetzako Europako Taldea. Tresna juridiko horren helburua mugaz gaindiko, nazioz gaindiko eta eskualdeen arteko lankidetzaz erraztea eta sustatzea da. Lankidetzarako proiektuen aurkezpenerako Europako sare nagusiak ere aipatu ziren.

Informazio gehiago:

<https://euskadi.net/evento/seminario-como-preparar-un-proyecto-convincente-para-conseguir-fondos-de-la-ue/r61-vedorok/es/>



> **Europako Parlamentuak 2015eko aurrekontuen inguruko adostasun bat lortzeko premia adierazi die Estatukideei**

Azaroaren erdian eztabaida sortu zen Estatukideen eta Europako Parlamentuaren artean, Europako Batzordeak aurrekontuen zirriborroan egindako zuzenketak zirela eta. Euroganberako talde politikoek Estatukideei konponbide komun bat lortzeko premia adierazi die, 2015eko aurrekontuak behin-betiko onar daitezzen.

Eztabaida 5.000 milioi euroko ezohiko diru-sarreraren erabileraren ingurukoa da, hainbat herrialdeei jarritako isunetatik lortutako dirua, alegia. Euroganberak pilatutako zorra ordaintzeko erabili nahi du eta Estatukideek, ordea, aurrekontu nazionalera bideratu nahi dute dirua.

Azaroaren 28an jarraituko dute bi erakundeek elkarriketarekin, Europako Batzordeak aurrekontu proiektu berri bat aurkeztu ostean. Hala, Parlamentuak eta Kontseiluak bi asteko denbora edukiko dute negoziatzeko. Parlamentuak behin-betiko testua abenduko osoko bilkuran bozkatu ahalko du. Ez bada aurrekontuen adostasunik lortzen urtarrilaren 1a baino lehen, Europar Batasunak "hamabi behin-behineko zati"-tan jorratu beharko du gaia, hau da, hilero atalburuz atalburu.

Informazio gehiago:

<http://www.europarl.europa.eu/news/es/news-room/content/20141121IPR79863/html/Presupuesto2015-El-Parlamento-insta-a-los-Estados-miembros-a-llegar-a-un-acuerdo>



DOKUMENTU INTERESGARRIAK

> **Europako funtsen arteko sinergiak sortzen laguntzeko gida (Europako Batzordea)**

Europar Batasunak gida berria argitaratu du eskualdeko nahiz herrialdeko politikariei laguntzeko. Helburua berrikuntza eta lehiakortasunean inbertitzen duten EBko hainbat funtsen arteko sinergiak hobetzea da. Gidaren izenburua honakoa da: "Sinergiak sortu Europako Estruktura eta Inbertsiorako Funtsak, Horizon 2020 eta ikerkuntza, berrikuntza eta lehiakortasunarekin loturiko Europar Batasunaren beste programen artean". Espezializazio adimentsua, EEI Funtsak edo lan-programak bezalako estrategien garapenean jarduten duten interesdunei dago zuzendua gida hau. Hala ere, proiektuak gauzatu, hautatu, ebaluatu, edo txosten eta kontu-ikuskaritzak egiten dituzten erakundeei ere dago zuzendua.

Gida honetan EEI Funtsak, Horizon 2020, COSME, Erasmus+, Creative Europe eta Connecting Europe mekanismoaren zerbitzu digitalen arteko aspektu osagarriak ageri dira. Gainera, egoera zehatzak aurkezten dira, datozen urteetan EEI Funtsen (egun negozio prozesuan) eta EBren beste funtsen arteko programen lehentasunak zehazteko balio dezaketenak.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docgener/guides/synergy/synergies_en.pdf

> **POCTEFA 2014-2020: Lankidetzak aukera berriak (Pirinioetako Lan Elkartearen Osoko Batzordea)**

POCTEFA programaren aurkezpena. CTPAak Europako Batzordera bidali zuen Espainia-Frantzia-Andorra Lurralde Lankidetzarako Programaren (POCTEFA) proposamena, Europako Batzordearen ebaluazioa eta behin-betiko onarpena eskuratzeko asmoz.

2014-2020 POCTEFA Espainia-Frantzia-Andorra mugaz gaindiko gunean integrazio ekonomiko eta sozialen proiektuak sustatzeko diru-laguntzen bosgarren belaunaldia da. Eskualde Garapenerako Europako Funtsetik (EGEF) eskuratutako 189,3 milioi euroko laguntzei esker lankidetzak aukera berriak sortuko dira Pirinioetako bi aldeetako erakunde eta eragileen artean.

Informazio gehiago:

<http://poctefa.eu/FCkeditor/UserFiles/File/Presentacion%20COMPLETA.pdf>



> **Berrikuntza eta hazkunde ekologikoaren bidean (Panorama aldizkaria, Europar Batasunaren Eskualde eta Hiri Politikarako Zuzendaritza Orokorra)**

Europar Batasunaren Eskualde eta Hiri Politikarako Zuzendaritza Orokorra aldizkariaren 50. edizioa argitaratu du. Horregatik ale honek artikulu berezi batzuk dakartza, tartean Johannes Hahn komisarioari eginiko elkarrizketa. Bertan, lehen agintaldian kohesio-politikan gertatutako aldaketak aztertzen ditu.

Kohesioaren inguruko 6. Txostenari buruzko artikulu bat ere irakur dezakegu. Bertan xehetasunez aztertzen da Kohesio-Politikak nola laguntzen dion Europari krisi ekonomikotik ateratzen eta nola sustatzen duen hazkunde berritzaile eta ekologikoa. Grezian zentratzen da Elkartze Akordioen eguneratze berriena: Greziako Garapen eta Lehiakortasunerako Ministerioko ordezkari batek inbertsioaldi berrirako prestakuntzak azaltzen dizkigu. Besteak beste, Open Days-i buruzko laburpen bat eta Europako Gizarte Funtzaren helburuen azalpena aurki ditzakegu.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docgener/panorama/pdf/mag50/mag50_es.pdf